

GABONAK ZURETZAT PROGRAMAK 400 JARDUERA BAINO GEHIAGO ESKAINIKO DITU

- *Donostia Gazteriak aisialdiko elkarteekin, Donostia Kulturarekin eta hiriko beste eragile batzuekin batera diseinatu du programa hau, egun hauetan aisialdiko eskaintza berezia hiriko toki guztietara irits dadin. Haurrek, familiek eta gazteek, besteak beste, askotariko tailer, ikuskizun eta bestelako jardueraz gozatu ahal izango dute abenduaren 16tik urtarrilaren 6ra bitartean.*

Gabonak Zuretzat programa beste urte batez itzuliko da Gabonetan Donostiara. Aurtengo edizioak 400 jarduera baino gehiago eskainiko ditu haur, familia eta gazteentzat abenduaren 16tik urtarrilaren 5era bitartean, hiriko auzoetan. Horrela, herritarrek, besteak beste, tailer, ikuskizun eta antzezlanaz gozatu ahal izango dute. Donostia Gazteriak aisialdi eta denbora libreko elkarteekin, Donostia Kulturarekin eta hiriko beste eragile batzuekin batera diseinatu du programa hau.

Helburua hiriko auzoetan aisialdi ez-kontsumistaz gozatzeko aukera emango duen eskaintza ludiko eta kultural zabala eskaintzea da. Programazioa bi liburuxkatan jasotzen da. Liburuxka horiek online egongo dira, adin-tarteen arabera banatuta: bata, haurrentzako (0-11 urte) eta familientzako jardueretarako, eta, bestea, gazteentzako (12-30 urte), www.donostia.eus/gazteria webgunean aurkitu ahal izango dira.

Irudiari dagokionez, programaren aurtengo nortasun grafikoa Usandizagako Diseinu Grafikoko Goi Mailako Prestakuntza Zikloaren eta Donostia Gazteriaren arteko lankidetzari esker sortutakoa da. Diseinu Zikloko 1. mailako ikasleek 14 lan prestatu dituzte. Proposatutako diseinuen artean, programa iragartzeko karteletarako irudi nagusia aukeratu da eta kartel hori sare sozialetan eta Donostiako autobusen, markesinetan, etab egongo da ikusgai.

Haurrentzako programa

Haurrentzako programa (0-11 urte) hiriko 17 auzotara zabaltzen da eta hainbat jarduera eskainiko ditu: Haurtxokoak, Donostia Kultura, elkarteak, kultur eragileak, Cristina Enea Fundazioa, San Telmo Museoa, Tabakalera eta Donostia Festak. Gainera, Donostia Gazteriak ere bere jarduerak antolatu ditu.

Prentsa oharra

Nota de prensa



Gabonak Zuretzat programaren bidez, hurrek, aisialdia modu dibertigarrian betetzea eta ohitura onak hartu ahal izatea lortu nahi da, eta, batez ere, beste modu batez gozatzea. Helburu horien osagarri, ikasteko eta hainbat balio garatzeko aukera eskaini nahi da, elkartasuna, laguntasuna, sorkuntza, irudimena eta abar.

Horrela, txikienek hamaika jardueraz gozatu ahal izango dute, hala nola mota guztietako tailerrez (sukaldaritza, zirkua, Gabonetako apaingarriak, etab.), filmen proiektioez, emanaldiez (magia, dantza, antzerkia, etab.), jolasez eta ipuin-kontalariez. Haurtxokoen udal sarean, jolas eta dibertitzeko ekintza ugari izango dira. Gainera, bisita bereziak ere jasoko dituzte, Mari Domingirena kasu, Haurtxokoetara joango da eta gutunak emateko aukera izango dute.

Donostia Gazteriak hainbat jarduera berezi antolatu ditu programa honen barruan. Hauetariko batzuk izen ematea beharko dute eta abenduaren 12an irekiko dira www.donostia.eus/gazteria web orriaren bitartez:

- "Nork esan zuen hemen ez direla izarrak ikusten?": astronomiari buruzko tailerra, abenduaren 22an, 16:30ean, Itsas Aurre Kultur Etxean (Igeldo), ondoren, 18:30ean, gaueko behaketa astronomikoa, non familia osoak parte hartu ahal izango duen, 18:30ean Undermount-en (Aita Orkolaga 46, Igeldo).
- Eskalada: abenduak 27, 28 eta 29an, 16:30- 17:30 Pio Baroja kiroldegian.
- Izan arrantzale: baxurako arrantzari eta itsasoari buruz modu dibertigarri eta ludikoan ikasiko dute urtarrilaren 2, 3, 4 eta 5ean, 9:00-13:00 Itsas Kofradian.

"Jolastuz programatzen: programazio tailerra puzzle, blokeekin eta zibersegurtasuna" tailerra izango dugu Kode Eskolaren eskutik: abenduaren 26tik 29ra eta urtarrilaren 2tik 5era, 9:30-13:30, Amara Haurtxokoan. Kasu honetan, izen ematea Kode eskolaren bitartez egingo da hurrengo kontaktuaren bidez: info@kode-eskola.eus edo 943000333. Hurrek, Scratch eta minecraft lengoaiak landuz programatzen hasi eta sakontzeko aukera izango dute. Bakoitzak bere esku-ordenadorea eraman behar du.

La Petite Malumaluga konpainia Katalanaren "Nubes con bebés" ikuskizun zoragarria, 0-5 urte bitarteko hurrei eta haien familiei zuzendutakoa izango dugu. Zuzeneko perkusioen musika, jazzaren klasikoak, bertsoa eta istorio original baten narrazioa uztartzen dituen. Aldi berean, ikuskizun parte-hartzailea da, non ikusleekiko interakzioa etengabea den konpainiak errazten dituen teknika instrumental eta perkusio txikien bitartez. Intxaurren Kultur Etxean antzeztuko da abenduaren 28an eta hiru emanaldi eskainiko dira: 16:30, 17:30 eta 18:30. Gonbidapenak, gazteria@donostia.eus helbidera idatziz erreserbatu ahal izango dira abenduaren 12tik aurrera.

Prentsa oharra

Nota de prensa



Añorgako frontoian Añorga KKEren laguntzarekin, jolasak egongo dira: bumperrak, giza futbolina, txutometroa eta puzgarriak abenduaren 28an 17:00etatik 20:00etara.

Halaber, abenduaren 24an, 16:00etan, 4 eta 13 urte bitarteko haurrek San Silvestre txikian parte hartu ahal izango dute, Amara Kirol elkarteak antolatuta, Donostia Gazteriaren laguntzarekin. Horretarako, www.sansilvestredonostiarra.com webgunean izena eman beharko dute.

Bestalde, San Telmo Museoak, Cristina Enea Fundazioak eta Tabakalerak ere jarduera bereziak antolatu dituzte txikienentzat, eta Kultur Etxeek tailerrak eta ikuskizunak eskainiko dituzte, hala nola Potxin eta Patxinena abenduaren 22an Amara Zaharreko pilotalekuan, Eriz Magoarena urtarrilaren 3an Etxarrienen edo Tomaxen abenturak Ibaetako pilotalekuan urtarrilaren 4an, besteak beste.

Azpimarratu behar da Donostia Gazteriak auzoetako elkarten eta erakundeen laguntzari esker egiten dituela jarduera horiek guztiak. Besteak beste, Roteta Berri Haurtxokoa Altzan; Añorga KKE Añorgan; Igeldoko Herri Kontseilua eta Undermount Igeldon; ILAE auzo elkarteak Ibaetan; Txominenea Enea Haurtxokoa Txomin Enean; Aratz Gia Taldea Ategorrietan; Larrunarri Eskola Antiguan; zentroko Iruzun Taldea Antiguan eta Egian; Valhalla eta Mamur Aisialdi Taldea Amaran.

Gazteentzako programa

Hiriko auzoetan ere gazteentzako jarduerak izango dira.

Gaztelekuetan LH6tik aurrerako gazteentzako eskaintza berezia prestatu da. Ohiko gabonetako eskaintzaz gain (gabon sukaldaritzak, apainketa, filmak, eskulanak, mahai jolasak...), ekintza bereziak ere aurkitu ahal izango dira, horien artean; eskapismo tailerrak, Scooter freestyle tailerra, errealitate birtualeko tailerra, dantza saioa, magia saioa eta adimen artifizialeko tailerrak.

Halaber, Donostia Gazteriak jarduera bereziak eta doako tailerrak antolatu ditu, hala nola "Gabon Gazte Txef" Basque Culinary Center-en, Escape Street Gros eta Parte Zaharreko kaleetan zehar, Robotika tailerrak edo eskalada esaterako. Izen ematea irekia egongo da abenduaren 12tik aurrera www.donostia.eus/gazteria web orrian:

- Gabon Gazte Txef: abenduak 22, 10:30-13.30 eta 16:00- 19:00, Basque Culinary Centerren.
- Igeldon gaueko behaketa astronomikoa abenduaren 22an, 18:30ean, Aranzadiren eskutik. Undermount (Aita Orkolaga 46, Igeldo)
- Scooter Freestyle tailerra abenduaren 27an, 17:30ean.

Prentsa oharra

Nota de prensa



- Eskalada: abenduaren 27, 28 eta 29an, 17:30-18:30, Pio Baroja kiroldegian.
- Eskapismo tailerra: abenduaren 28an, 18:30ean Antigua Gaztelekuan.

Robotika: abenduaren 26tik 29ra eta urtarrilaren 2tik 5era, 9:30-13:30, Amara Gaztelekuan. Kasu honetan, izen ematea Kode Eskolaren bitartez egingo da hurrengo kontaktuaren bidez: info@kode-eskola.eus edo 943000333. Robotikaren oinarriak ikasiko dira robotak eraikiz, martxan jarritz, sentsoreak erabiliz eta hainbat ariketa garatuz. Parte hartzaile bakoitzak bere esku-ordenadorea eraman beharko du.

Martutene Gaztelekuan Eskapismo tailerra abenduaren 29an 17:30ean eta Adimen artifizialeko tailerra urtarrilaren 3an, 17:30ean, egongo dira. Bertan izena eman beharko dute gazteek.

Escape street: urtarrilak 3 eta 4, 17:00-20:30, Gros eta Parte Zaharreko kaleetan zehar. Izen ematea: <https://escapethecity.es/san-sebastian/>

Kconvent jaialdia: Kpop karaoke eta dantza lehiaketa. Abenduaren 23an 17:00etan Kontadoresen. Izen ematea: <https://labur.eus/Kconventjaialdia>.

Bumper-jokoak, txutometroa eta giza futbolina abenduaren 28an 17:00etatik 20:00etara Añorgako frontoian Añorga KKEren laguntzarekin izango da. Ez du izen ematerik beharko.

Gainera, "Lauzpabost Stand up" bakarriketa saioaz gozatu ahal izango dugu, abenduaren 29an, 19:00etan, Kontadores Gazte Zentroan. Saio honetan Maria Blanco, Mikel Irazusta, Iker Plazaola, Julen Portillo eta Maialen Sorzabalbere izango dira.

Urtarrilaren 5ean Urban 13 Elkarteak Open Kultur jaialdia antolatuko du 18:30etatik aurrera Dabadaban, inprobisazio, dantza eta showcase lehiaketarekin. Sarrera 3 €koa izango da.

Programa egiterakoan, erakunde eta elkarte hauen laguntza eskertu behar da: Kode Eskola, Basque Culinary Center, Aranzadi Zientzia Elkarte, CD Fortuna KE, Scape the City, Aratz Gia Taldea, Valhalla, Urban 13 Kolektiboa, Undermount, Igeldoko Herri Kontseilua, Iruzun, ILAE eta Larrunarri.